


Euskadi %5,7 hazi zen lehen hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko BPGaren urte arteko hazkunde tasa %5,7 izan zen lehen hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera %1,0 izan zen, hau da, aurreko bi aldietako tasaren antzekoa, hazkunde erritmoan egonkortasuneko irudia erakusten duena.

Enplegua %5,0 areagotu zen lehen hiru hilekoetan

Enplegua kontu ekonomikoen arabera
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Kontu ekonomikoek adierazten dute enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %5,0 hazi zela 2022ko lehen hiruhilekoan. Urte arteko aldakuntza tasa horrek adierazten du 46.300 lanpostu inguruko igoera gertatu dela, 2021eko aldi berean behar izan zirenekin alderatuta.



Sinatutako hipoteken kopurua %17,3 igo zen otsailean

Etxebizitzaren gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko otsaila




Otsailean, iaz baino %17,3 hipoteka gehiago sinatu ziren etxebizitzaren gainean. Guztira, 1.937 hipoteka formalizatu ziren, azken hamar urteetako kopururik handiena baita, nahiz eta urrun dagoen 2012aren aurreko urteetan erregistratutako kopuruetatik, baita finantza krisia hasi ondoren ere.

Iturria: INE.

Azalera handietako salmentak %4,7 gutxitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko martxoa. Indizea



Azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %4,7 murriztu ziren martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean. Jaitsiera batez ere elikagaietan gertatu zen, baina gainerako produktuek ere beherakada izan zuten. Hala ere, enplegua %2,7 handitu zen.

Iturria: Eustat.